


Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko maiatzak 11 • 213. zka.

Cristobal Altube, 50 urte hil zela

Iturririk iturri: Edu Abasolo • Iritzia: Amaia Garcia • Kirolak: Igor Guenetxea

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Lasai

Miriam Manteca

MASAJISTA

Masaje terapentikoa
Postura azterketa
eta egokitzea diplomatur

ZERBITZUAK

Osteopatia: Burukoa
Estrukturala
Funtzionala

Lotura muskularrak

* Aurrez lekua eskatu (943 770434)



Botua emungo dozu hauteskundietan? Zein alderdik irabaziko dau?



Jose Javier Mateos

Ez, ez dot botauko. Ez dot politika jarraitetan, eta sekula ez dot botau izen.



Antonia Navarro

Bai, botaukot. Hala ta be, gero eta gutxiau sinisketan dot politikan. Partidu abertzale batek irabazi biheko lauke.




Adolfo Lozano

Bai, oin artien beti botau izen dot. Aurten ez dakitt zeinek irabaziko dauen.



Gurutze Larrinaga

Bai. Gehixengua Ibarretzek atarako dauela uste dot, baina PP eta PSOEk bat itten badaue, kontuz ibili bieko gare.



Juanito Madinagoitia

Bai, juengo naz botetan. Nazionalistak irabaziko dauela uste dot, nik horrekin bat itten dot.



Raquel Esteban

Bai. Kanpaina jarraitetan egon naz, eta bata bestien kontra arittu die. Hemenguek irabaztie espero dot.

Aretxagazeta

213. zenbakia. 2001eko maiatzaren 11n.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETA.
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribebebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zاراia mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatazaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jauriaritzako kultura
sailaren laguntza

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



HIZAN AB-zen "LIARKAPE" FRONTOIRRE FATEKO BI SARIBERA ERDSI JITTUAT. ETORRIKO HAZ BA...

JO, ANE, BETI PILOTA KONTA HORREKIN HABIL...

BA NI OINGUEN ER NAIXUEN PARTIDURE...

EITOK BAIN PILOTA PARTIDURE...

"ALMENEKUEK" URTEROKO DESFILIE EINGO JUEK

AAAAAA!
HORI HOBIE DON... FANGO GAITTUN BA..

Mikel Arroia

Aretxagazeta

ELKARTASUNERAKO PINTXOAK Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Komiteak elkartasun pintxoak izeneko kanpaina jarri du martxan. Euskal preso politikoei laguntza eman, eta elkartasuna adierazteko asmoz sortu da ekimena. Horretarako, herriko kuadrila desberdinei Urbaltzen pintxoak egiteko deialdia egin zaie. Zapatuero-zapatuero kuadrila bat izango da pintxo horiek egiteko ardura izango duena. Maiatzerako dagoeneko, hainbat lagun prest azaldu dira, ekainerako, barrez, oraindik tokia dago jendea apuntatzeko. Beraz, elkartasunerako pintxoak egiteko prest bazaude Urbaltzen eman dezakezue izena. Kanpaina barri honekin, Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Komiteak, Kepa Urrea eta dispersioa jasaten duten gai-nontzeko preso politikoak bisitatzeko, euren senitarte-koek egin beharreko bidaia, eta diru gastu izugarriak salatu nahi izan ditu.

Otalazelai eta euskararen eguneko egitarauak gertu daude

Maiatzaren 19an ospatuko da urtero moduan euskararen eguna. Loramendi euskara elkarteak antolatuta aurten ere ekitaldi ugari izango ditugu herrian. Goizaldean trikitilariak, eta guez Txatunga Benbe taldeak jarriko dute musika. Bertsozaleak ere, izango dute non gozatu. Aurten Peñagarikano eta Estitxu Arozena arituko dira ber-

tsotan. Horrez gain, baba-jan herrikoia, dantzak, erakusketak eta xake partidak egingo dira zapatuan.

Domekan, barrez, Otala Zelaiko eguna ospatuko da. Aurten, gainera, bada berrikuntzarik egitarauan. Bazkari herrikoia ostean, Kulki taldearen eskutik, herri kirol eta jolasak egiteko aukera izango dute kuadrila gutziek.



KURTZEBARRIKOEN BIDAIA EZUSTEKO ARAZOA Maiatzaren 29an abiatu ziren Kurtzebarri eskolako 16 ikasle Erresuma Batua. Turismo apur bat egin eta eskolan ikasitako ingelesa praktikan jartzera joan ziren. Hegazkina hartzerako orduan ordea, ezusteko eta arazo galanta izan zuten. Pasaporte eta etzuten ikasleek, gurasoek baimendutako eta ertzainek sinatutako agiria eraman zuten. Hegazkina hartzerako orduan, baina, polizia nazional batek euskaraz zegoen baimen agiria ez zuela ulertzen eta ikasle bati ez zion hegaldia hartzen utzi. Itzultzaile eta gurasoak ere azaldu ziren, baina poliziak tinko eutsi zion bereari. Kurtzebarri eskolakoek Arartekora ke-xua eraman eta hauek zerbait egingo duten esperantzarekin daude. Arazoak-arazo, ikasleak pozik bueltatu dira etxera.



AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19 eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEAN



DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

EZKUTU
TABERNA

Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00
Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENAZA**

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

■ PLAN ESTRATEGIKOAREN AZKEN BERRIAK LKS

kontsultoriak, herritarren laguntzaz, egin du dagoneko Aretxabaletarentzako plan estrategikoaren zati haundi bat. Bihar bertan aztertuko dute Kontseilu orokorrean komisiio desberdinetan egindako ekin-tza plana. Plan estrategikoa egiteko, lehenengo eta behin, herriak zituen beharrak, hutsuneak eta auke-rak aztertu ziren. Horretarako herritar desberdinek osatutako aholkularitza kontseilua eta kontseilu orokorra eratu ziren. Horrela, Aretxabaleta, herri hobe bat izateko helmugak eta konpromesua hartu ziren. Orainarte, herritarrez osatutako komisiotan, lau eremutan egin da lana: Aisialdi eta herritarren dinamikan, ingurugiro kalitatean eta herri erakargarritasunean, ekonomiaren dinamizazio eta promozioan, eta azkenik, informazioa gizarteratzen. Bakoitza landu ostean, komisiokoak ekintza plan konkretuak aurkeztu ditu. Hauek, lehenengo aholkularitza kontseilura eraman dituzte eta handik pasatakoan, asteazkenean bertan eraman zituzten kontseilu orokorrera. Oniritzia jasotakoan, osoko bilkuran aurkeztuko dituzte.

Diploma banaketa institutuan

Maiatzaren 4an banatu zituzten Aretxabaletako institutuan, langileen trebakuntzara bideratutako ikastaroen diplomak. Guztira 24 ikaslek jaso zuten diploma. 12 emakumezko Geriatria laguntzaile ikastaroa egin dute, beste horrenbeste gi-

zonezko, barrez, mekanizazioan eta erraminta fabrikazioan trebatu dira. Guztiek, Anjel Bergartxeren eskutik jaso zuten diploma. Alkateak, gainera, ikasteko sekula ez dela berandu gogoraraziz, zorionak eman zizkien guztiei.



“Litri” azken agurra

Maiatzaren 4an esan zigen agur Pablo Urkiak. “Litri” ezizenaz ezagunagoa egin zen Pablo Aretxabaletan. Herrian ekitaldi ugari parte hartu zuen, musika eta antzerkietan batez ere. Orain, betirako joan zaigun arren, guztion oroimenean geldituko da Litri herriaren alde egindako guztia.



HERRIKO LIBURUTEGIAK INTERNETEN

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Liburutegi guztiak batu ditu sarean. Horrela, EAEko 77 liburutegi publikoetako liburu fondoen berri jakin ahal izango dugu. Tartean noski gure herrikoak ere azaltzen dira. Udal liburutegikoak eta Kurtzebarri eskolako liburutegikoak daude webgunean. Informazio guztia gazteleraz zein euskaraz aurkituko dugu gainera. Eta kontsulta egiteaz gain, etorkizun hurbil baten, maileguak ere egin ahal izango dira ordenagailu bitartez. Web orrian, liburutegiko ordu-tegia, helbidea, telefono zenbakia, argazkiak eta kontsulatarako katalogoak ikusiko ditugu. Gehiago jakin nahi baduzue sar zaitezte honako internet helbideetan: “www.kultura.org” edo “www.euskadi.net/kultura”

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34



TXILARRA

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28



■ **ARIZMENDIREN EGITURAKETA BARRIA** Arizmendi Kooperatibak gaur egun dituen 3.300 ikasleri zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, kudeaketa egitura barria jarriko du martxan datorren ikasturtean. Horixe azaldu zuten joan den martizenean emandako prentsaurrekoan. 2001-2002 ikasturtean, beraz, Arizmendi 5 unitatetan banatuko da. Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa unitateak sortuko dira. Horrez gain, beste ekintza batzuetarako unitatea ere izango da. Bakoitzak bere antolaketa eta kudeaketa plan propioak izango ditu.




Debagoienean atzeratuen alde dauden elkarte guztietako ordezkariak

Atzeratuen jaialdia aurten gure herrian

Aurten Aretxabaletan ospatuko da atzeratuen aldeko jaialdia. Iaz Atzegik, Gipuzkoako atzeratuen aldeko elkarteak, 40 urte bete zituen, eta hori aitzaki zela Eskoriatzan egin zuten festa. Orduko ekitaldietara, gainera, jende asko batu zen, eta jaialdia oso arrakastatsua izan zen. Horregatik, aurten ere, horrelako zerbait egitea pentsatu du-

te gure herrian. Jaialdia maiatzaren 12an egingo da. Goizaldean, Debagoieneko atzeratu eta hauen familiarartekoak herriko plazan elkartuko dira. Gero bueltatxo bat emanez, gosea egin eta gainontzekoei gure herria erakutsiko diete heringoek. Bukatzeko, iturri gorri frontoian bazkaria egin eta dantzaldia izango dute iluntzerarte.

GAZTETXEAREN GAINENKO LEHENENGO BILERAK EGIN DIRA Orain hamabost egunetik hona asteazkeneko elkartu dira herriko hainbat gazte gztetxearen gainean berba egiteko. Alkateak berak deitutako lehenengo batzarrera, AGA, HAIKA, Hiruatx, Jai batzordea, Jarrai, Loramendi euskara elkarte eta Xake taldekoak batu ziren. Guztira 25 bat lagunek luze hitzegin eta eztabaidatu zuten gztetxearen gaineko arazoaz. Proiektu barriak egiteko proposamenak ere egin ziren, eta hauek lantzeko asmoz batzar gehiago egiteko prest azaldu ziren. Horretarako, berriz ere, herriko gazte guztiei batzar hauetan parte hartzeko deialdia egin zaie. Izan ere, helburu nagusia, gazte guztiak batu eta denon gustukoa den gztetxe baten proiektua egitea da. Hemendik aurrera batzarrak kultur etxean egingo dira.



SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24
20550 ARETXABALETA - Tel.: 616 965 795

ARGAZKI DENDA

UrKiola

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...


LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79



HAMABOSTEAN BEHIN



2000 KARAKOL AFALTZEKO

San Prudentzioak ospatzeko lapikokada bat karakol gertatu zuten Eguzki alde elkartean, danera 2000 karakolez osatutako lapikoa. Afaritarako 22 lagun elkartu ziren, gehienak arabarrak. Sukaldari lanetan Javier Basabe eta "Pitxi" aritu ziren. Entsalada, karakolak eta ostein, gazta eta menbriloarekin tripa majo bete zuten guztiek. Herrian ez zen karakol asko gelditu.

ZORIONAK BIKOTE

Deba Arroko pilota txapelketako finalera iritsi ziren bi bikoteak ditugu argazkian. Errasti anaiak kostata baina garaipena lortu zuten bergararren aurka. 21-16 galtzen ibili ondoren, markagailuari buelta eman eta irabaztea lortu zuten. Orain bi urte ere irabazi zuten Aretxabaletako bikoteak txapelketa hau.



ERRENTA AITORPENA 99


Informatu, aurten legea berria da!

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.




Zenbaki



Aldez aurretik deitu !

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



Guztion partaidetza

Orain hilabete, gutxigora-behera, Aretxagazetatik deitu ninduten iritzia kronika bat idazteko. Baina nola? Zertaz idatzi behar dut? Noizko? Egia esan galdera asko eta erantzun gutxi. Lan zaila jarri didazuena... alde bate-tik idaztea oso zaila egiten zait, eta bestalde, zein gai jorratu?, ez da erre-za...

Baina nahiz eta lan zaila iruditu, ez zitzaidan bidezkoa iruditzen ezer ez nuela idatziko esatea, zeren eta aretxabaltar bezala horrelako ekintzetan parte hartu beharko genuke, deiaren zain egon barik. Baina... Pentsamen-du hauekin lotutako gaia jorratzea garrantzitsua iruditu zait, "Partai-detza". Nire iritziz gu guztion par-taidetza herriko, bailarako, Euskal Herriko eta munduko arazoetan nahi-ko pobrea da. Askotan pentsatzen dugu, edo hori pentsatzea komeni zaigu, bakoitzak egin dezakeena hain gutxi izanda, ez genukeela ezer lortu-ko. Baina benetan hau guztia alde-rantziz pentsatu beharko genuke.

Nahiz eta bakoitzak ezer gutxi egin, baina gutxienez ZERTXOBAIT eginez gero, denen artean gauza asko lortuko genuke. Herri mailako partai-detzara bueltatuz, nire ustez denok dugu gustuko herrian ez ohiko diren aktibitateak egotea. Hala ere, askotan zerbait eskatzen digutenean edo tokatzen zaigunean betiko "kexua" jartzen dugu: ez daukat denborarik. Nire ustez, denbora baino arazo han-diagoa NAHIA da, zeren eta nahi izan ezker, gauza gehienak lortzeko gai gara. Beharbada ni ez naiz egokiena hau guztia esateko, baina nigandik hasita, bakoitzak zerbait jarrita, ziur nago gauza asko lortuko dugula.

Badakit, jende talde txiki batek lan asko egiten duela eta gehiengo batek ezer gutxi edo ezer ez. Baina idatzi honen ondoren ea denok gogoeta apurtxo bat egiten dugun eta jende multzo murriz hori gehiengoan bihurtzen dugun. Denontzat dago le-kua, bai udalak eta baita herriko kul-tur eta kirol elkarteak eskuak zabalik dauzkate ilusioz beterik ekintza ezberdinen antolakuntzan parte har-tu nahi dutenentzat.

Eskerrik asko guztioi idatzi hau ira-kurtzeagatik, beharbada gauzak bel-tzegi jarri ditut baina ANIMO!!! Parte hartuz zeure buruarekin gustura senti-tuko zara, eta denon artean herri di-namikoago bat lortuko dugu.

Amaia GARCIA



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
 Bertako okina

**Apotzako
 San Migel
 merenderoa
 alokatzen da**

943 71 49 96

Aretz

taberna

Markole, 5
 Tel.: 943 79 20 14



**Euskadi Euskaditik
governatzea nahi duzu?**



www.ibarretxe.com


eusko
alkartasuna

 EAJ
PNV

Ibarretxe da baietza.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

hezkuntzaren erdigunea

ZU zara



m **MONDRAGON**
UNIBERTSITATEA

HITZALDIA

ZERGATIK IKASI
MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

M.U.ko Errektorea den Javier Retegi Jaunaren eskutik

"Mendeberri"
heziketa proiektua

Unibertsitate Kanpus
kontzeptu berria

Gizarte eraldaketa
eta eskualde garapena

Javier Retegi Jaunak, zentruetako zuzendari eta orientatzaileei eta irakaskuntza ertainetako ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldia eskeiniko du. Gazteak etorkizunari begira orientatzeko gomendioak emango ditu, M.U.k eginkizun hau nola betetzen duen azalduz. Era berean, unibertsitatearen hezkuntza eskaintza aurkeztuko du.

ARRASATE

Biteri Ikastetxe Nagusia
(Goi Eskola Politeknikoa)

Maiatzaren 15a,
asteartea,
18:30ean

www.muni.es
Tel. 943 71 21 85

Euskal Telebistan jai-rik jai ibili eta gero, Madrilerera joan zen ikastaro bat egitera. Ordutik denbora de-xente pasatu da, bai-na ez da etxera itzuli. Beste etxe batean dihardu lanean, Anaia Handiaren etxean, hain zuzen ere.



Edu Abasolo Telebistako teknikaria

■ **Nolatan hasi zinen Gran hermanon lanean?**

■ Ni Madrilerera ordenadore bidezko edizio ikastarora egitera joan nintzen joan den urtean. Ikastarora ez zen oso luzea eta bukatzerakoan, hona itzuli aurretik, curriculum batzuk banatzea pentsatu nuen. Handik bi egunetara "40 principales TV"-tik deitu zidaten. Eta hortan lanean nenbilela "Gran Hermanon" lan egiteko deia jaso nuen.

■ **Zein da zure lana saio horretan?**

■ Kamaralari lana egiten dut. Etxe horretan kamara mordo daude eta horiek hartzen duten irudia zaintzen dut. Horrez gain, saio-ko pertsonaiek etxetik kanpora ateratzen diren bakoitzean erreportaje bat egiten

diegu, eta hor ere kamaralari lanak egiten ditut.

■ **Gertu-gertutik ikusita nolakoa da Gran Hermano?**

■ Telebistan ikusten denaren antzekoa da saioa. Harrigarria dena saioa egiteko dagoen muntaia guztia da: 50 monitore daude, psikologoak eta horrez gain bertan egiten da errealizazioa... Etxea irudikatu dezakezuen baina askoz haundiagoa da. Horrez gain, esan beharra daukat irudi batzuk zentsuratu egiten direla. Adibidez politikaz berba egiten dutenean beste norabait begira jartzen dira kamarak.

■ **Zuri ikusle moduan zer iruditzen zaizu saioa?**

■ Gustura ikusten dut, lehiketa bat besterik ez da. Telebistak gaur egun hori eskain-

tzen dizu, eta ikusi nahi baduzu hortxe duzu aukera. .

■ **Botatzen duzu faltan herrira?**

■ Bai, asko. Herriko "martxia" ez horrenbeste, izan ere, ezer gutxi egoten dela esaten didate lagunek. Hala ere, familia eta lagunak asko botatzen ditut faltan.

■ **Ezagutzen duzu Gaztetxe-arekin dagoen arazoa?**

■ Bai zerbait kontatu didate lagunek. Nire ustez, Aretxabaletako gaztetxeak ongi funtzionatu izan du betidanik eta ez dut uste itxiko denik.

■ **Zer moduz bizi zara Madrill moduko hiri haundi batean?**

■ Oso ondo hemen dana

daukazu eskura. Jendeak es-tresantea dela dio, baina ni gustura bizi naiz.

■ **Eta hangoek nola ikusten dute Euskal Herria?**

■ Euskal Herriaren gainean politikoki berba egiten dute bakarrik. Oso irudi distorzionatua daukate. Lehenengo Donostia zein polita den aipatzen dute, baina bigarren gaia arazo politikoa izaten da.

■ **Etorriko zara herrira botoa ematera ?**

■ Bai, asmo hori daukat.


■ **Etorrizunarako zein proiektu duzu?**

■ Oraingo behintzat Zeppelin produktoran lan egiten jarraituko dut kamaralari lanetan, gerora nork dakil!

GRUPO

RKUZ


1950-2001




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Mitarite 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

TEATRO REALE D'OPERA
C. ALTUBE JOHNSON
in "FRANCIULLA del WEST"



Cristobal Altube artzain abeslaria



Kristobal gogotsu kantuan.

Andra Mari auzuneko lorategian hiru zutabe eta plaka bateaz osatutako oroigarria dago. Lorazainak txukun edukitzen saiatzen dira gainera. Norbaitek ez badaki ere, gazteen artean seguruenik askok, herriko bi musikari omentzen dira lorategi horretan, aita Arrue eta Kristobal Altube "Txindurri". Datorren maiatzaren 17an beteko dira hain zuzen 50 urte Kristobal Altube hil zela. Mundu osoan ospea lortu zuen tenorea plaka batean idatzitako izena besterik ez dadin izan, Txindurri zein izan zen gogoratu gura dugu.

Betidanik izan du gure herriak musikarako zaletasuna, gaur ere hor daukagu abesbatza dotorea, eta gure arbasoen artean ere oso abeslari onak ditugu. Izenak aipatzen hasiz gero asko izango lirateke esan beharrekoak baina besteen artean bat esatekotan Kristobal Altube abeslari haundia dago. Bere paregabeko ahotsak gure herritik kanpora eroan zuen eta munduko antzoki ospetsuetan fama haundiko operak abestu zituen. Hil honen 17an beteko dira hain

zuzen 50 urte Txindurri hil zela.

Kurtzebarritik mundu osora

Kristobal 1898ko uztailaren 10ean jaio zen Aretxabaletan. 15 urte arte artzain ibili zen Kurtzebarrin eta hantxe sortu zitzaion kanturako zaletasuna. Kurtzebarriko haitzak eta ardiak izan zituen lehenengo entzuleak eta bere esanetan inon baino gusturago kantatu ei zuen bertan. Arrasateko zarraila lantegian eta Elorrioren ere

ibili zen lanean soldadutza egitera joan arte. Soldadutza egiten zegoela ahots paregabea zuela konturatu norbait eta kantu ikasketak egitera bultzatu zuen.

1921. urtean hasi zen kantu ikasketak burutzen. Ez zen bide samurra izan. Kristobalek, oster, oztopo guztiei aurre egin eta Italiako Rafael Grani musikari ospetsuaren aurrean abestea lortu zuen. Honek, zortzikoa abesten entzun zionean ahots ederra gustatu eta Txindurriri musika irakastea

erabaki zuen.

Kristobalen jendaurreko aurkezpena Maltako antzokian izan zen. Honen ostean, Milan, Erroma, New York, Paris, Lisboa, Washington, Berlin, Viena... eta beste hainbat hiri etorri ziren. Aretxabaleako artzain apala munduko antzokirik ederretara. Ospe haundiko operak abestu zituen, gainera, Sanson, Walkiria, Aida, Otello, Tosca, Carmen, Amaya... Azken hau kantatzen ei zuen beste guztiak baino gusturago, bere herria eta artzain

izan zeneko garaia gogorazten zizkiotelako akaso. Tenore eta abeslari askok goraipatu zuten bere ahots sendo eta dotorea.

Operak abestez gain, Madrileko Kontserbatorioko kantu katedra irabazi zuen oposizioz eta han ere lanean aritu zen. Udako oporretan Espainiako hainbat herritarara Astorga, Oviedo, Palencia, Logroño... seminarioak ematera ere joaten zen. Liburuska bat ere idatzi zuen ahots artikulazio arazoan gainean. Hara eta hona ibili arren urtero urtero etortzen zen Txindurri Andramaixa egunez Aretxabaletara. Ezagutu zutenek, goitik behera zuriz jantzita etortzen zela diote. 1951-eko maiatzaren 17an hil zen Madrilén 53 urte zituela.

1973. urteko omenaldia
1973ko abuztuan, Aretxabaletako Alkar taldeak, musika eta kultura bultzatu guran,

herriko bi seme musikari omendu zituen, aita Jose Arrue frantziskotarra eta Kristobal Altube. Abuztuaren 24tik 30era bitartean hitzaldi eta abesbatzen emaldiak izan ziren. 30a, barrez, domeka, egun handia izan zen. Arantzazuko fraileek meza eman zuten eta ostean, aita Arrue eta Kristobal Altuberen omenez Andra Mari auzuneko oroirgaria aurkeztu zen. Lora-mendi dantza taldearen saioa eta Demetrio Iriartek zuzendutako txistularien ekitaldia ere izan ziren.

1973an jai handia egin zen herriko bi seme hauen oroimena betiko gera zedin gure artean. Helburua ez zen batere txarra baina gaur ia 30 urte beranduago eta Txindurri hil zela 50 urte betetzen diren honetan, inor gutxi gogoratzen da Aretxabaletan hain musikari handiak jaio eta bizi izan zirenez.



1951ko maiatzaren 17ko egunkariko berria

San Sebastián, 17 de mayo de 1951 -

Cristóbal Altube, ha muerto

Falleció ayer por la mañana en Madrid, a consecuencia de una angina de pecho

La noticia, ha constituido para nosotros una verdadera sorpresa. Cristóbal Altube, el señor de la voz de hierro, el hombre de "alma sana y cuerpo fuerte", ha muerto víctima de una agria angina al pecho. Con la sorpresa de la mala nueva, se acomosa a todos un gran pesar, particularmente, para los guipuzcoanos que tanto apreciábamos por ese carácter abierto y sincero que le adornaba y hacia suya en todos los rincones que visitaba.



Cristóbal Altube, el gran tenor dramático, unia a su profunda vocación unas facultades de cantante meritísimas. Su voz, preciso registro sonoro, y su técnica, le permitían abrazar los diversos estilos de la ópera. Para Cristóbal Altube, las dificultades de un cantante emanaban de la imposición de la voz. Es en esta materia donde el noble tenor vasco cifraba los éxitos de los artistas, junto a la disposición de alma para cantar las páginas con la compenetración precisa con el espíritu y texto.

El recuerdo siempre en San Sebastián al tenor de Aretxabaleta, al pastor que, desde las montañas del "Kuruzte-Berrri" aguardaba con sus voces los sales y elevaba al Cielo sus piegas y canciones como agradecimiento infinito a los favores que recibía. Era, según propia confesión, cuando con más pureza cantaba: lejos de las pasiones humanas y más cerca de Dios; sobre las montañas y en la naturaleza, rodeado de la belleza natural que no se cambiaba de contemplar y estudiar. Lo mismo que su voz corría por los montes vascos en busca de un eco, así fue su carrera, no exenta de dificultades. Pero triunfó, y fue admirador de propios y extraños. Su torrente de voz, bien timbrada, era la envidia de todos los cantantes, más el tenor Jaari Volpi, quien en una ocasión, plendidamente; aquel "Exultate in ergo musulmano" del primer acto, fue magnífico; lo mismo que el duo de amor del mismo; muy bien la lígubre expresión de sus celos en el segundo, en la entonación que imprimió a la energética melodía "Ora e per sempre addio velle unanite", del segundo acto; y a gran altura, en el monólogo del tercer acto "Mi padre saguilar". Fue el mejor artista y cantante de su época.

Kristobal Altube, hil da

Madrilen hil zen Kristobal bularreko anginarean erruz. 53 urte besterik ez zituen Aretxabaletako tenoreak. Berriak tristura handia sortu zuen musikazaleen artean eta halaxe agertu zen Donostiako egunkari honetan ere. Gizon zabala eta lagunkoia, paregabeko ahotsaz gain antzerkikariko doai berezia zuena. Hori dela eta hainbat opera estilo jorratu zituen arrakasta handiz. Kristobal debozioz izan zen artista, eta bere lanerako gogoari eta borondateari esker bidean topatutako oztopoak gainditu zituen. Beste batzuei lagundu guran musika irakasten ere ibili zen, ez beti konforme, bera lako borondatezko jendea gura zuelako, nekatu barik lanerako goga zuena. Bai European, bai Ameriketako oso gizon estimatua izan zen. Gazteleraz hala nola berba egiten bazuen ere, hainbat hitzaldi eman zituen, musikaren gainean zituen ideia berritzaileak azaltzen zituzten hitzaldiak. "Goraipamenak ez ditut gogoko. Nire artista ideiak sentitu eta uler nazaten gurako nuke" izan behin baino gehiagotan.



Txirrindularitza

Pedro Guenetxea memoriale ospatuko da hilaren 20an. Iaz ez zen Pedro Guenetxea memoriale ospatu, baina aurten izango dugu karreraz gozatzeko aukerarik. Lehen eta bigarren mailako kadeteek hartuko dute parte, eta tartean Aretxabaleto txirrindulari batzuk ere izango dira: Mikel Arana, Mikel Katania, Jon Lete eta Jon Rodriguez. Goizeko 11:00etan hasiko da, eta 53 kilometroko ibilbidea egingo dute txirrindulariek.



Futbola

Preferenteak garaipena, baina Jonanek lesio larria. Jon Ander Larrinaga Udako jokalariek tibia eta peronea apurtu zituen joan den astebukaeran Ibarra izan zen partiduan. Azkenengo minutuetan izan zen gainera. Lesio gertatu eta minutu batzuetara gola sartu zuen Zangituk, eta 1-0 gailendu zitzaion etxeko taldea Zestoari. Yarza epaileak 14 txartel atera zituen, baina ez zuen jokalaririk aldageletara bidali.



Triatloia

Bailarako triatloirako dena gertu. Ekainaren 9an ospatuko da Deba Goieneko I. triatloi proba. 16:00etan hasiko da proba Urkulun Korueta inguruan, eta 1.500 m. igari egin beharko dute partehartzaileek. Ondoren 40 km egingo dira bizikletan, eta bukatzeko Arrasaten 10 km korrika. Arrasate triatloi taldeko kideek triatloi herrikoia izan dadin gura dute, eta herritarrei proban parte hartzeko aukera eskaini. Informazio gehiago: www.euskalnet.net/arrasatett



Futbitoia

Zapatuan jokatu da futbito txapelketako finala. Iazko neguan jokatzeko hasi zen futbito txapelketa, eta dagoeneko bere azkenetara iritsi da. Pasa den astebukareren final aurrekoak izan ziren, Kemenek Yugo taldea penaltietan irabazi zuen, eta beste norgehiagoka MCM eta TPMren artekoa izan zen. MCM 3 eta 2 gailendu zitzaion TPMri. Hor-taz, finala MCM eta Kemen taldeek jokatu dute datorren zapatuan 17:00etan.

Igor Guenetxeak Oñatiko auto krossa irabazi zuen joan den apirilaren 28an. Afizio polita da beretzat horrelako karreretan partehartzea. Garai batean Arkarazon egiten ziren auto krossak, eta horrek bere arrastoa utzi diola dirudi auzotar honi.

■ **Auto krossean noiztik eta nola hasi zinen?**

■ Iaz egin nuen lehen karrera Oñatin, udaberriko auto-krossa. Lagun bat eta biok animatu egin ginen, eta parte hartzea pentsatu genuen.

■ **Beraz, ez da horren denbora luzea, eta aurten Oñatin lehena izan zara.**

■ Bai, hala da. Urteera ona egin nuen, eta hortxe dago gako. Karreran lehena jarri nintzen, eta gero lehen postu hori mantentzen saiatu nintzen karrera bukatu artean. Lehen postu hori mantenduz, eta zorte apur batekin irabaztea lortu nuen.

■ **Oñatikoaz aparte beste zein karreretan izan zara?**

■ Iaztik hona guztira lau

karreretan hartu dut parte. Oñatin hiru alditan, iazko udaberrikoa, udazkenekoa eta aurtengoa, eta gero Eskoriatzakoan.

■ **Zergatik erakartzen zaitu auto krossak?**

■ Afizio polita da. Entrenimendua da niretzat, eta arratsalde pasa joaten naiz karreretara. Gainera, beti izan naiz odol berokoa, eta gustura ibiltzen naiz kotxe eta karrera kontuetan.

■ **Lehen Arkarazon antolatzen ziren auto kross karrarak. Horrek eraginik izan duela uste duzu?**

■ Bai. Arkarazoko jaietan gertu-gertutik bizitzen genituen karrera hauek. Horrez gain gazte-gaztetatik gustatu izan zaizkit motorrekin, kotxeekin, goitibeherekin... zerikusia duten karrarak. Lehen anaia auto-krossean ibiltzen zen, eta orain neu

hasi naiz.

■ **Arriskutsua da?**

■ Ez. Abiadura handia ez da hartzen eta ez da inondik inora arriskutsua. Ikusleek ere arauak errespetatzen badituzte, ez dut uste arrisku haundirik dagoenik. Oñatikoan esaterako ikusleek goitik ikusten dute karrera, eta kotxeak hara heltzea ia ezinezkoa da.

■ **Zein kotxe erabiltzen duzu?**

■ Opel Kadet GSI bat daukat. Kotxe zaharrak izaten dira, matrikulatu gabeak, eta karrerarako bakarrik erabiltzen dut. Nirea urteeretan nahiko ondo ibiltzen da, eta eskerrak horri.

■ **Aurten beste karreraren batean hartuko duzu parte?**

■ Eskoriatzan San Pedrotan antolatzen badute parte hartuko dut. Hala ere, ez dakit egingo den, horretarako se-

guria lortu beharko dute.

■ **Arkarazon osterera ere auto krossa antolatzea pentsatu duzue?**

■ Bai, baina zaila da. Jaiak ere indarra galdu zuten, eta horrelako karrera bat antolatzeko izugarritzko lana eskatzen du. Orain beste herrietan antolatzen dutenek nahikoa merito dute, lan handia izaten baita aurretik eta egunean bertan ere bai.

Igor Guenetxea Oñatiko auto krosseko irabazlea



■ **ALBERTO IÑURRATEGI HIMALAYARAKO BIDAIA PRESTATZEN** Jordaniatik etorri ondoren, ekainean Himalayako G-Iera (Hidden Peak, 8.047 metro) egingo duen bidaia prestatzen ari da Alberto Iñurrategi. Hidden Peak da Albertori 14 zortzi-milakoak burutze-ko falta zaizkion bi mendietatik bat. Jon Belokik lagunduko dio Pakistango Karakorumen dagoen tontorrerako bidean. Leku horrek ez dizkio oso orotzapen onak ekarriko Albertori. Izan ere, anaia hil zen G-IIaren alboan dago. Ekainaren 5ean urtengo da lan taldea Pakistan aldera, eta uztailaren 30ean itzultzeko asmoa dute.

■ **KIROL ELKARTEEKIN BATZARRA EGIN DU UDA-LAK** Udaletzeko kirol teknikaria, Asier Mugika, eta kirol zinegotzia, Agurtzane Elkoru, herriko kirol elkar-teetako ordezkariekin batu ziren apirilean. Bilera horren helburua taldeen egoera ezagutzea batetik, eta hauendako Udalak ematen dituen dirulaguntzak azterzea izan zen, bestetik. Batzarrean elkar-teetan dagoen jende falta azpimarratu zen. Asierren iritziz arazo hori orokorra da, eta irtenbide bat bilatu behar-ko zaio aurrerantzean.

Futbol talde bat sortu gura dute herriko gazte batzuk

Herriko gazte talde batek futbol talde bat sortzeko nahia azaldu du. Euren helburua datorren denboraldirako 2. Erregional mailan arituko den futbol talde bat ateratzea da. Astean udaletxeko kirol sailari idatzi baten bitartez eman diote proiektuaren barri. Idatzi horretan Ibarako futbol zelaia erabili ahal izateko eskaera egin dute. Izan ere, proiektua aurrera ateratzeko Gipuzkoako futbol federazioak honako hiru elementuok eskatzen baititu: federatutako jokalarien fitxak, taldeko estatutuak eta jokatu ahal izateko zelaia. Proiektu barri honen atzetik, jokalaria ugari daude, eta baita bestelako jarraitzaileak ere.



Ibarako futbol zelaia erabiltzeko eskaera egin du gazte talde batek

Hainbat iritzi

Futbol talde barri bat sortzearen ideia azkar zabaldu da herrian, eta hainbat iritzi sortu ditu, batzuk aldekoak eta beste batzuk kontrakoak. Uda futbol taldekoek, esaterako, ez dute begi onez ikusi herrian beste futbol talde bat sortzea. Izan ere, elkarte aurrera eramateko jende arazo larriak dituzte, eta orain Udatik aparte beste talde bat sortzen bada, zuzendaritzako batzuk Uda utziko luketela ere esan dute. Bestalde, gertu daude gazte hauei Udako zuzendaritza uzteko.

Udalak, bestalde, kontua ez du gehiegi aztertu momentuz, baina laster eman beharko die erantzuna proiektuko kideei.



■ LAU KARATEKEK ASTEBUKAERA KARATE-ARI ESKAINIKO DIOTE

Maiatzaren 18tik 20ra bitartean karate eskolako lau atxabaltar Arabako Espejora joango dira karate entrenamenduak egitera. Odilo Vazquez karate maixuaz gain, beste hiru ikaslek hartuko dute parte urteera horretan, Manuel Arrupek, Miriam Santateresak eta Odei Vazquezek. Astebukaera guztia karateari eskainiko diote, eta ariketak ohikoak baino bereziagoak izango dira. Izan ere, entrenamendu guztiak kanpoan izateaz gain, batzuk gauz ere egingo baitira. Horrez gain, entrenamendu bat errekan ere egiten da, eta Odilok adierazi digunez, pauso batzuetan ura gerriraino ere heltzen da. Astebukaera polita bizitzeko aukera izango dute, beraz, lau karateka hauek Arabako Espejon.



Haizea

Zure gustoko giroa

Mitarte z/g
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 85 57

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57

Euria lagun izan zuten Urkulun 92 korrikalariek

Egun euritsua izan genuen joan den domekako, eta euripean korritu behar izan zuten Urkulun batu ziren 92 lagunek. Seniorrak 42 izan ziren, beteranoak 35, emakumeak 12 eta juniorrak 3. Atxabaltar gutxi aritu ziren aurtentzako lasterketan, sei denera.

Lasterketako irabazlea Asier Zarraga bilbotarra izan zen 00:41:56ko denbora eginez. Ez zuen Kamel

Ziani oriotarrak duen errekorra gainditzerik izan. Hala ere, denbora bikaina egin zuen. Beteranoetan Diego Campos donostiarra nagusitu zen, emakumezkoetan Legazpiko M^a Eli Martinez eta juniorretan Gorka Rodrigez hau ere legazpiarra.

Bitxikeria moduan madrildar bat izan dugu aurtengo edizioan, seniorretan hiru-garrena izan zen, gainera.



Irabazlea, Asier Zarraga bilbotarra helmugaratu zen unean



Senior mailako irabazleak. Tartean Xabier Sarasua lehen atxabaltarra



Emakumeen sari banaketa. Ezkerrean M^a Elena Llorente atxabaltarra

SAILKAPENA:

Senior

1.- Asier Zarraga	00:41:56	Bilbo
2.- Richard Fernandez	00:42:14	Oñati
3.- David Gonzalez	00:43:06	Madril
Lehen atxabaltarra		
Xabier Sarasua	00:51:52	

Emakumezkoak

1.- M ^a Eli Martinez	00:23:22	Legazpi
2.- Maite Civicos	00:25:17	Lasarte
3.- Pilar Arriola	00:25:57	Elgoibar
Lehen atxabaltarra		
M ^a Elena Llorente	00:34:09	

Beteranoak

1.- Diego Campos	00:20:53	Donostia
2.- Patxi Sanchez	00:21:43	Zarautz
3.- Jabier Mentxaka	00:21:52	Arrasate
Lehen atxabaltarra		
Alfonso Luelmo	00:22:44	

Junior

1.- Gorka Rodrigez	00:21:59	Legazpi
2.- Iban Chabe	00:24:48	Legorreta
3.- Aitor Delgado	00:25:00	Elorrio

Almera Tino



ALMERA TINO. GERTUKOEK BANATZEN ERAKUTSI DIZUTE. ORAIN ESKATU EGITEN DIZUTE.

ZURETZAT GAUZAK ALDATU EGIN DIRA. DAGOENEOK EZ ZAUDE BAKARRIK. ERANTZUNKIZUNAK DITUZU BAINA HORREGATIK EZ DIOZU MOTOR HANDI BAT DUEN AUTO BATI UKO EGINGO. GERTUKOENTZAT ERE AUTO HANDI BAT BEHAR DU IZAN. ZURE FAMILIAKO BAKOITZA GARRANTZITSUA SENTIARAZIKO DUEN AUTO BAT. MARRAZTEKO EDO IRAKURTZEKO BALIO DUTEN MAHAI TOLESKORRAK, PANPINAK, MAPAK, LIBURUAK, POLTSAK EDO TA JOKUAK

GORDETZEKO MILA TXOKO, MUNDU ZABALA MIRESTEN ERAKUTSIKO DIZKIGUTEN LEHIO HANDIAK. ZUK EMATEN DIEZUN SEGURTASUNA EMATEN DUEN AUTOA. ZEUK EMATEN DIEZUN GARANTIA BERDINAREKIN. BERAIENTZAT NAHI DUZUN EROSOTASUNA LORTZEN LAGUNTZEN DUEN AUTOA... HORRELAKOA DA NISSAN ALMERA TINOA. GEHIEN MAITE DITUZUNEKIN ETA GEHIEN MAITE ZAITUZTENEKIN BIZITZEKO ETA GOZATZEKO AUTOA.

ALMERA TINO	Prezioa
1.8 COMFORT	2.634.000 pta.
2.2 Di COMFORT	2.834.000 pta.
2.0 AMBIENCE Automatikoa CVT	3.204.000 pta.



Almera gama zabala...



SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE

ALMERA 3/5 ate 1.970.000 pezetatik aurrera*
ALMERA Sedan 2.092.000 pezetatik aurrera*

Vendearentzako prezio gomendatua (BEZ, matrikulazio-zerga, garraioa eta Nissan asistenta barne eta 5 urteko bermea kilometro mugarik gabe), barne. Penintsularako eta Balearetarako baliagarria.

Aldi bi


ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR
Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxa. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com

NK
Nortekar

Aurpegi barria dugu Bodegon jatetxean, Igor Reguero arrasatearra. Hogetairu urte besterik ez dituen arren, sukaldean esperientzia haundia du. Orain artean beste batzuentzat egin du lan, baina hemendik aurrera bere negozio propioa eramateko aukera izango du.

Igor Reguero

"Norbere negozioan gusturago lan egiten da"



■ Zein da zure lanbidea?

■ Hemeretzi urterekin bukatu nituen Oñatin ostalaritza ikasketak. Ordutik, laubak jatetxetan aritu naiz sukaldari lanean.

■ Zelan animatu zinen Bodegoia hartzera?

■ Hemen lanean ari nintzen, eta jatetxea errentan jarri behar zutela-eta, interesatzen zitzaidan galdetu zidaten. Animatu eta hementxe nago.

■ Zenbat lagun zaudete sukaldean?

■ Sukaldean ni bakarrik nago.

■ Zenbat menu ematen dituzu eguneroko?

■ Eguerdietan 85 inguru.

■ Eta nola moldatzen zara?

■ Aurreko egunean lanaren zati haundi bat egiten dut, eta hurrengo goizean jarraitzen dut.

■ Nolakoak dira zuk egiten dituzun menuak?

■ Toki bakoitzean ikasi dudana nire erara moldatu dut.

■ Zeintzuk dira tabernako bezeroak?

■ Batez ere Copreciko langileak izaten ditut, baina baita beste enpresa batzuetakoak ere.

■ Zer moduz Aretxabaletan?

■ Ondo, arrasatearra naizen arren, Aretxabaletan gehiago

egoten naiz. Neska laguna ere hemengoa da.

■ Sukaldari eskari haundia dago.

■ Lantegietan lana egonda, sukaldari guztiek lantegietara alde egiten dute. Bestetik, Oñatin ostalaritza eskola desagertzekoan sukaldari barriak gutxitu egin dira.

■ Zein plater gertatuko zeniguke gustura?

■ Edozein arrain goxo-goxo gertatuta.

■ Zergatik uste duzu sukaldari ospetsuenak gizonezkoak direla?

■ Betiko galdera da hori, baina erantzuna ez dakit.

■ Etxean egiten dituzu sukaldari lanak?

■ Gutxitan, normalean ama aritzen delako.

■ Zer botatzen duzu faltan lan honetan?

■ Batez ere denbora libre gehiago.

■ Zer egiten duzu lanetik kanpo?

■ Kirola, piraguan ibiltzea gustatzen zait.

■ Non ikasi zenuen?

■ Bergaran egin nuen ikastaro bat. Gero itsasoan eta erreketan aritu naiz.

■ Nora joan izan zara piraguan ibiltzera?

■ Bergarako taldeaz aritzen naiz, itsasoan joan izan gara olatuetan ibiltzera: Deba, Hondarrabi...

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA



URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4




LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

7. IBILBIDEA

ARETXABALETA-KURTZEBARRI-ELORRIETA-KARGALEKU-ANDARTO TXIKIA-EZATE-MARUATX-DEGURIXA-BISTAKO ATXA-ELIZABARRI-ARETXABALETA

Luzera: 16,8 kilometro - Denbora: 4 ordu 30'



Aretxabaletatik Mendiolara abiatuko gara, eta hemendik Uriagako laura, eta handik Urkia bakarrera. Hemen nahi izanez gero pistatik edo aldatz gogor batetik gora abiatuz, Elizabarrira joko dugu (1:15').

Elizabarriko iturriko sendatik gora abiatuko gara, pistarekin bat egin arte. Puntu honetan, behelaldean Etxaspuru tontorra geratzen da; Elizabarriri eta Asuntzeta bitartean.

Goruntz jarraituko dugu, porlanezko aldatz gogor bat ikusi arte, aldatza hasten den lekutik goiko gainerarteko bitarteak Apotzakarta du izena.

Aldatza igotzen dugunean, ezkerreara hartu eta Burdintxon txabolatik aurrera, sendatik abiatuko gara, eta Kurtzebarri begi bistan izango dugunez, bertatik jarraituko dugu Kurtzerainoko bidean.

Kurtzebarrira goazela ezkerretara geratuko zaizkigu Narrukoatxa, Narrukoatx txiki, Ortutxueta eta Ortutxueta bukaeran Mugarriko hatxa.

Eskumatara, barrez, Udaltza geratzen da, eta Udaltzaren barrenean Udaltzako Leizia. Inguruan dagoen leizerik haundiena da berau.

Gurutzetik 350 metro tara Kurtzebarriko leizea deitzen den beste leize baten ondotik pasatuko gara.

Behin Kurtzebarrin (1146), meza ematen den lekutik aurrera jotzen badugu, Arbeko zerrera heldu aurretik dagoen garbigunera helduko gara. Leku horrek Ziontza du izena.

Kurtzebarri eta Elorretako haitza bereizten duen tartea Ariniuxe izenez ezagutzen da. (1:55')

Kurtzebarritik bueltan, sendatik etorri beharrean, ezkerretan geratzen diren haitzen azpitik etorriko gara, eta haitz horietako batzuk hauek dira: Ariniuxe, Elorretako haitza (1155),





Urrunean Kurtzebarri eta Elorretako haitza

Apotza... Haitz hauen barrenetik Kargalekuraino joango gara (2:20').

Kargalekun, hainbat pistak bat egiten dute, eskumatara Aranguren barrenetik aurrera Arlutzeruntz joaten da, behe-runtz begiratuz, gu joango garen lekutik, Andarto txiki mendia ikus dezakegu.

Beraz, behera dijoan pista hartuko dugu, eta Sakonahundixetatik behera Gaintxuetaraino joango gara. Puntu horretan eskumatara dijoan pista jarraitzen badugu, Kontrastako lepotik sar gaitezke Degurixan, baina guk aurrera jarraituko dugu. Andarto Txiki Mendia (855) igo ondoren, pistatik aurrera jarraituko dugu. Handik eskumatara egin, eta Andarto osteko sendatik Garabietatik aurrera eginez, Ezateko lepotik sartuko gara Degurixan (2:55').

Ezaten hilarri bat ikus dezakegu, Txaramela Hilarria, 1964. urteko uztailearen 18an Fermin Leizaolak aurkitu zuen. Bere neurriak metro 1 luze, 0.5 metro zabal eta 25 zm sendo dira, eta bere aur-

pegirik garrantzitsuena ekialdera begira aurkitzen da.

KURTZEBARRIREN IZENA

Kurtzebarri izena nondik datorren esatea ez da samurra, baina Eskoriatzako Trankilek, Kurtzebarri liburuan dioenez, lehen mendi honen izena Zaraya omen zen, eta horrela diote aspaldiko dokumentuek.

1828. urteko idatzi batek ere Zaraya izena erabiltzen du mendi hau aipatzen duenean. Baina Trankilen ustetan esplikazio bat badago Kurtzebarri izenaz noiztik ezagutzen den argitzeko:

1742. urtean Zaria mendiko tontorrean, harrizko gurutze bat jarri zen, Eskoriatza eta Aretxabaletako herriek erdibana ordaindu zutena. Gurutze hau mendi honetan jarri zen lehena izan zen. Baina harrizko gurutze hau gastatuaz joan zen, eta jausi ere egin zela uste da, horregaitik beste gurutze bat jarri zuten 1840. urte inguruan. Bere ustetan ordutik aurrera hasi zitzaion Kurtzebarri deitzen kurtzea zegoen gailurrari.

Garai hartan kurtzeari deitzen zitzaion kurtzebarri eta ez mendiari, baina azkenean mendi osoari Kurtzebarri deitzen hasi zitzaion, eta antza denez orduan aldatu zitzaion izena.

Zaria izenarekin gertatu zena, oster, beste mendi batzuekin gertatu zen antzekoa da. Aitzgorri eta Aralar mendiek bezala, mendi altuenaren izena mendilerro osoak hartu zuen, horrela, mendilerro guztiari Zaria deitu zitzaion.

Hemendik Degurixako zelaian sartuko gara, erdian Maruatx mendia (1027) dago. Degurixa inguruan hainbat koba bisita ditzakegu: Maruatxgo koba, (mediaren hegoaldean), Degurixako haitzulua (Maruatxgo koba eta kontrastako lepoaren bitartean), Basobaltzeko leizia (Degurixa eta Kargaleku bitartean, 11 metro sakon ditu), Aranguren txikiko leizia (Degurixatik Udalatxara bitartean, Aranguren txikiko garatean) eta Arlutzeko leizia (Arlutzetik 600 bat metrotara).

Ibilbidea jarraituz, Degurixatik Arlutzeko arratetik gora egingo dugu. Hemendik ondo ikus daiteke, nola Elorretako haitza Kurtzebarri baino altuagoa den.

Gu Bistakoatxatik behera, Apotzakartako pinuditik barrena, Elizabarrira jaitziko gara. Hemendik Mendiolara eta Mendiolatik Aretxabaletara. (4:30').

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79



Triatloia egin guran

Ez dakit konturatzen zareten, baina Aretxabaleak triatloia egiteko baldintza egokiak betetzen ditu. Gainera, bertako bi modalitate ikusmen nahikotxo sortzen dute. Hasi txirindularitzatik hasiko naiz; apirila bukaeran karrera izan zuten Dorletako Ama txirindulari eskolakoek herrian. Bertan alebin eta infantilek korritu zuten, eta **Julen Galiano** izan zen bigarrena. Zorionak Julen nahiz eta podiumaren ezker aldean geratu, jarraitu horrela gutxi falta da eta erdirako.

Bizikleta utzi eta bigarren modalitateari helduko diot: takarrara. Domekan Ojala Zelai Krossa ospatu zen, bertan Juleni jarraipena egiteko oso atxabaltar gutxi egon ziren. Hauxek izan ziren: **Xabier Sarasua, Mikel Uribeetxerria, Jon Antxia, Maria Elena Llorente** (emakume bakarra), **Alfontso Luermo eta Kepa Antxia**. Zer hobeto karrera bukatu eta azken modalitateari heltzea. Aurrekoan herriar gutxi izan baziren, hemen inor. Lastima Urkulu bertan izanda igeriketa saioa egin ez izana. Baina lasai datorren hilean krossa ez baina bailarako **I. triatloia** egingo da. Triatloi egitaraua prestatuta dago, eta www.euskalnet.net/arrasatett helbidean aurkituko duzue informazioa. Beraz hasi preparatzen!

Urkulutik behera etxeratze-

ko, ondo egongo litzateke auto krossean egitea. Aretxabaletar batzuk probatu zuten, baina Oñati aldean, kotxe zaharren auto krossa egon zen eta. Bertan **Igor Guenetxea** arkarazoarrak irabazi zuen proba, eta **Josu Otzoak** ere bere bidaiatxoa egin zuen, nahiz eta horrenbeste zorte ez izan.

Hainbeste kross eta hainbeste kirol, ni ez nago geldirik egoteko. Gaur **Aretxarte** merkatal elkarteak zozketa egingo du eta erne egongo naiz ea neure zenbakia ateratzen den saridun. Irakurle, zurea bada berriz; ondo ibili.

Domekan hauteskundeak direla eta nahiko egun zalapartatsua izango da. Denok izango dugu aukera Kurtzebarri eskolara joan eta gure boza emateko, honela modu berean haurtzaroko oroitzapenak gogora ekartzeko ere balioko du. Bertako hautes mahaietan egongo direnei, eguna ahalik eta arinen pasatzea desio diet. Nik nire kantoi honetatik ikusiko zaituztet eta datorren alean berriz hemen izango naiz, begi hauekin ikusitakoa kontatzeko gertu.

Oharra: Ondo dago Urkulu-
ra txakurrak eramatea takarraran egiten dutenei animatzeko, baina gero etxera ekarri behar dira. Itxura denez, txakur bi dabilta galduta paraje honetan eta ahaztuta utzi dituenak eraman ditzala etxera.

M. J. Aretxarte



Egun denak ez dira berdin

Xabier Etxeberria
Elkarlanean, 2001. –
(Literatura Elkarlanean ;
209)

Tasio Gurutze Gorrian lanean dagoen objetorea da nobela honetako protagonista nagusia. Halako baten auto istripu bat gertatuko da herriko gazte bat hiltzen delarik eta Tasiok hildakoaren eskuan aurkitutako erastun baten aitzakian heriotza hori inbestigatzen hasiko da.

Erritmo bizi bizian doa nobela hasera haseratik, kapitulu motzak eta elkarrizketa ugariak lagunduta, hizkera herrikoi eta bizia erabiliz. Alde batetik intriga erabiltzen badu ere, maitasun kontuak eta gizartearen kritika ere egiten da Etxeberriaren lehen nobela honetan.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Gaurkoan Euskara zuzentzen tarte honetan orain artean agertu diren akatsen laburpena doakizue. Adi begiratu iezaiezu akatsei, izan ere, hemendik hamabost egunetara Kurtzebarri eskolako hizkuntza normalkuntzarako batzordearekin batera lehiaketa bat egingo baitugu.

**LEHIAKETA DATOR
ETA ADI!**

OKER	ZUZEN
Nire zorionetan oparitu zidaten!	Nire egunean, oparitu zidaten! Nire urtebetetzean oparitu zidaten!
Pailazoz mozorrotuko naiz. Pirataz mozorrotuko naiz.	Pailazo jantziko naiz. Pirata joango naiz.
Zeba ez zatoz gurekin?	Zergatik ez zatoz gurekin?
Ni zuria gustatzen naiz. Peru Mariana gustetan da.	Nik zu gustuko zaitut. Peruri Maria gustetan jako.

MAIATZA 12 ZAPATUA

■ ATZERATUEN JAIALDIA

Debagoieneko atzeratuen jaialdia ospatuko da herrian. Eguerdiko 12:30ean elkartuko dira herriko plazan. Gero bazkaria Iturrigorri frontoian.

■ ANTZERKIA

"Un irlandes en Euskadi" Macrea-k antzerkia emango du 22:30etik aurrera gazte-txean.

13 DOMEKA

■ MENDI URTEERA

Murrukixok nagusiendako San Donato mendira urteera antolatu du. Goizeko 8:00etan izango da urteera Azbeko geltokitik.

17 EGUENA

■ ANTZERKIA

Loramendi euskara elkarteak antolatuta Ander Lipusek "Minutu bakar bat" izena duen antzerkia eskainiko du, 21:45ean udaletxe zaharrean.

19 ZAPATUA

■ EUSKARAREN EGUNA

Bertsolariak, trikitilariak, herri bazkaria, dantzak... izango dira egunean zehar.

20 DOMEKA

■ PEDRO GUENETXEA TXIRRINDULARI LASTERKETA

Lehen eta bigarren mailako kadeteek Pedro Guenetxea txirrindulari lasterketa korrituko dute Aretxabaletan. Urteera goizeko 11:00etan izango da Durana kaletik.

■ MENDI URTEERA

Zaraia mendi taldeak Urbia, Enaitz, Artzanburu, Arriurdin, Akaitz, Putreaitz, Gogormendi ibilbidea egingo du.

■ OTALA ZELAI EGUNA

Otala zelain erromeria izango da egun guztian zehar.

23 EGUAZTENA

■ HITZALDIA

"Guk geure eskola" gaia landuko du Juan Mari Elorzak. 19:00etan izango da Murrukixoko lokalean. Aretxabaletako irakaskuntzako guneak antolatuta.

24 EGUENA

■ HITZALDIA

Hondarribiko familia batek, 17 urtetan munduan zehar ibili denak, beren abenturak kontatuko dizkigute. Loramendik antolatuta 19:00etan izango da udaletxe zaharrean.

DEIALDIAK

■ UDALEKUETAKO BEGIRALE IZATEKO DEIALDIA

Uztailean zehar udaleku irekietan monitore izatea nahi duten guztientzat deialdia luzatu da. Monitore bezala parte hartu ahal izateko 16 urtetik gorakoa izan behar da, edo eta aurten 16 urte bete. Curriculum-ak Loramendin, ludotekan edo eta kultur etxean entregatu beharko dira.



URTEERAK

■ PIRAGUISMO URTEERA

Murrukixoko mendi elkarteak piraguismo sailak Errobira piraguan ibiltzeko urteera antolatu du. Maiatzaren 19 eta 20 bitarteko astebukeraren izango da. Federatuta egotea beharrezkoa da, eta izena eman gura izanez gero, Murrukixoko lokalean (Durana, 30) egin daiteke, martizenetan 19:00etatik 20:00etara bitartean.

Maiatzaren 17an
Western trilogiaren amaiera
- EL BUENO, EL FEO Y EL MALO

Zuzendaria: Sergio Leone.

Aktoreak: Clint Eastwood

Orduetgia: 22:00etik aurrera



Maiatzetik aurrera
20:00etan hasita

ZATOZ!

Zorion agurrak



Fernando Zubillaga
Maiatzak 4
Kenduizu korbatioi
eta atara traguak
lagunei. Zorionak.



Sarah Corres
Zubillaga
Maiatzak 4
(urte 1)
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Jone Ojea
Maiatzak 4
Zorionak zure
lagunen partetik.



Ohiana Aldai
Maiatzak 6
(9 urte)
Zure lagunen partetik
zorionak.



Itziar Aperribai
Maiatzak 7
Zorionak etxeko
partetik eta urte
askotarako.



Naiara Uriarte
Maiatzak 10
Markel eta Nagore
eta familia guztia-
ren partetik zorio-
nak.



Oier Aizpurua
Maiatzak 12
(5 urte)
Zorionak eta muxu
haundi bat.



Ana Azkoaga
Maiatzak 12
Zorionak tia Ana
eta ondo ondo pasa
zure urtebetetze
eguna.



Nerea Elortza
Maiatzak 13
Zorionak Inma eta
Larrin partetik.



Ander Antxia
(4 urte)
Maiatzak 17
Zorionak eta muxu
haundi bat.



Ander Mendikute
(8 urte)
Maiatzak 23
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Ibon Pablo
Melendez (4 urte)
Maiatzak 25
Iker anaia eta
gurasoen partetik
zorionak eta ondo
pasa eguna.

Sail honetan norbait
zoriondu gura baduzu
Aretxagazetara zuzendu
(Durana, 11) edo eta 943
79 86 21 telefonora deitu.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Txistuak • Txaloak

Azken aldian gure begirada herri barruko trafikoaren-
gan jarri dugu. Oraingoan **txistua** norabideak zehazten
dituzten trafiko seinaleak jartzen dituztenentzat da.
Azbe parean kotxerik datorren ikusteko norabidea
zehazten duen seinaleak eta aparkatutako kotxe eta
kamioiek ez dute kotxeak datozen ikusten uzten.
Hemen kaleko kexa jaso gura izan dugu, eta ez dakigu
zein konponbide izango duen, baina hobeto pentsatu-
ta jarri beharko lituzkete seinaleok ezbehar bat baino
gehiago izan baita hor.



Jaiotakoak

■ Ane Etxabe Isasmendi

Apirilaren 4an.

■ Nahia Eraña Mendez

Apirilaren 25ean.

Hildakoak

■ Pablo Urkia Astola

"Litri"

Maiatzaren 4an. 73 urte.



D

Ama Birginari lore eskaintza

Don Angel Garmendia herriko abadearen garaikoa dugu, gaur hona ekarri dugun fotografia zahar hau. Maiatzeko domeketan Ama Birginari lore eskaintza egiten zitzaion, eta hileko azken domeka bereziena izaten zen. Egun honetan Ama Birgina altarean jartzen zen azken agurra egiteko. Bere inguruan argazkiko aingerutxoak batzen ziren. Altaretik larrosa petaloak jaurti eta

ondorengo kantuak abesten ziren: "Agur Jesusen Ama", "Agur, agur, agur Maria" edo eta ondorengo hau: "El 13 de mayo /La Virgen Maria /bajo de los cielos/a coro de Iria". Don Angel jubilatu zenean, barrez, elizkizun berezi hau egiteari utzi zitzaion.

Argazkia lehenagoko kontentuko atean aterata dago. Argazkian goian ezkerretik eskumara: **Lurdes Elkoro**, **Jasone Gorroño**, **Txaro Ur-**

zelai, **Maite Etxebarria**.

Erdian: **Rosa Mari Elorza**, **Lorea Leanizbarrutia**, **Eli Akixu (Ama Birgina)**, **Mari Angeles Jimenez**, **Mari Carmen Uribesalgo**.

Behean: **Amaia Olabe**, **Gurutze Arrese**.

Argazkia: **Ramon Mari Elkoro**.

Informazioa: **Jasone Gorroño**.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



nazio
aske bat
jaiotzera doa



euskal
herria



BOZKATU



Euskal Herria



Euskal Herritarrok



Maaialako Errabata, 13 - Tel.: 943 79 92 76 - ARRASATE

OKENDO
KIROLAK

The logo consists of a large, stylized letter 'C' or 'G' shape on the left, enclosed within a vertical oval border. To the right of the 'C' shape, the words "OKENDO" and "KIROLAK" are stacked vertically in a bold, sans-serif font.